

epaiBi e-Toolbar

Abokatu-prokuradorea

2.0 bertsioa



epaiBi Itzultzailea Ereduak Galdetu Pilulak Gehiago es eu Bilatu
Eredu-izena euskaraz abokatua

Abokatuen ereduak

Bilaketa 2 aukera

1) Ereduak bilatzeko goiko eremuan izenaren zati bat idatzi eta BILATU botoia sakatu.

2) Eredu guztiak ikusteko jo beheko karpeta hauetara:

- 0. Adingabeak
- 1. Administrazioarekiko auziak
- 2. Zibila
- 3. Zigor arloa

Bidali zure iruzkina


Euskaraz lan egiteko laguntza tresna

- Eskuliburua -

EpaiBi e-Toolbar: euskaraz lan egiteko laguntza tresna

Nola iritsi: instalazioa egin ondoren bi lekuetatik sar daitezke e-Toolbarrera:

- **Microsoft Word** aplikazioan goiko aukeren menuan e-Toolbar logoa ikusiko duzu, editoreak dituen bestelako botoien artean. Modu horretan dokumentu bat idazten ari zaren bitartean izango duzu eskura e-Toolbarrera.




Word bertsioaren arabera ikonoa


- **Windowseko mahai-ganean** esteka bat jarriko da, zuzenean e-Toolbarrera irekitzeko aukera emango diguna.




Testu editorean dokumentu bat idazten ari garela, edozein testu aukeratu eta e-Toolbarrean sakatuz aukeratutako testuaren itzulpena emango dizu (adibidean BETEARAZPEN hitza kontsultatu da).



Mahai-gainetik e-Toolbar ikonoaren gainen klik eginda tresna zuzenean irekiko da.




Word-en kasuan aukeratu gabe ere sar zaitezke e-Toolbarrean, bertan idatzi ahal izango duzu kontsultatu nahi duzuna.

Nola itxi: e-Toolbarra ixteko nahikoa da  botoia sakatzea.

Aukera nagusiak: Hauek dira e-Toolbarrak dituen aukera nagusiak:

- **1) Itzultzailea:** esaldi motzak itzultzeko aukera
- **2) Ereduak:** Abokatu eta prokuradoreentzat zuzenduriko formulario ereduak
- **3) Galdetu:** epaiBiri zure galderak egiteko aukera
- **4) Pilulak:** gomendio linguistikoak kontsultatzeko aukera
- **5) Gehiago:** kanpoko baliabideetara lotura eta testuak koptatzeko aukera.
- **Bidali zure iruzkina:** edozein pantailatatik erabiltzaileak iruzkin bat bidaltzeko aukera izango du.

Aukera batetik bestera pasatzeko nahikoa da izenaren gainean klik egitea.



1) Itzultzailea (beta bertsio¹): itzultzaileak testu laburren itzulpenak egiten lagunduko dizu Justizia arloan azken urteetan egin diren itzulpenen datu-basea erabiliz.



Kontsulta bat egiteko eremu zurian testua idatzi, itzulpenaren norabidea aukeratu (euskara>gaztelania edo gaztelania>euskara) eta “*Itzuli*” botoia sakatuko dugu; emaitzen zerrenda behean ikusiko duzu.

1. Itzultzaileak hobesten duen itzulpena lehenengo postuan erakutsiko dizu, ikur honekin markatua .
2. Itzultzaileak beste proposamen batzuk ere erakuts ditzake, itzulpen alternatiboak edo eskatutakoaren antzeko testuak izan daitezkeenak. “*Beharbada, honek lagunduko dizu*” esaldiaren azpian ikusiko dituzu.



¹ Sistema hobetzen ari gara, batzuetan emaitzak ez dira guztiz fidagarriak izango. e-Toolbarrak emandako itzulpen bat modu ofizialean erabili aurretik epaiBirekin egiaztatu.

- Kasu batzuetan ez da itzulpenik izango, baina antzeko testuen itzulpenak eman diezazkizuke:

The screenshot shows the epaiBi search interface. The search term is 'registro de rebeldes'. The results are displayed in a table with two columns: 'Gaztelania' and 'Euskara'. The table lists several entries related to 'registro de rebeldes civiles' and 'solicitud informacion del registro de rebeldes'. A message at the bottom of the results says: 'el anterior oficio del registro de rebeldes unase a los presentes autos y de conformidad con lo solicitado se recuerda a remitir testimonio de la residencia acordando...'. There are also links for 'Bidali zure inuzkina' and 'Ikusi Justizia.net-en'.

- Beste batzuetan, itzultzaileak ez dizu emaitzarik emango, eta erabiltzaileari aukera ematen zaio itzulpen-eskaera bat egiteko epaiBiko teknikariei zuzenduta.

The screenshot shows the epaiBi search interface with the search term 'juzgado de pago propuesto y programado'. A message box is displayed with the text: 'Ez da emaitzarik aurkitu. Bidali ITZULPEN-ESKAERA.' Below the message is an information icon and a link 'Bidali zure inuzkina'.

- Hizkuntza-norabidea gaizki aukeratuta: batzuetan galdetzen dugun testua ez dator bat markatutako hizkuntza-norabidearekin. Adibidean “bake epaitegia” galdetzen dugu baina “gaztelania>euskara” norabidea dugu. Sistemak emaitzarik jasotzen ez duenean kontrako hizkuntza norabidean bilatzen saiatzen da.

The screenshot shows the epaiBi search interface with the search term 'bake epaitegia'. A warning message at the top says: 'Beharbada aukeratu duzun hizkuntza ez da zuzena. Bilatzen ari zaren testua euskaraz egon dateke'. The results table shows 'bake epaitegia' in the 'Euskara' column and 'juzgado de paz' in the 'Gaztelania' column. Below the table, a message says: 'Bake-epaitegia Juzgado de paz', 'apelazioa bake-epaitegia apelacion Juzgado de Paz', 'Bake-epaitegia; apelazio-errekurtsua Recurso apelación juzgado paz', and 'Abadiñoako bake epaitegia paz de abadiano'. There are also links for 'Bidali zure inuzkina' and 'Ikusi Justizia.net-en'.

- Gaizki idatzitakoak zuzentzen: ohikoak dira errore ortografikoak edo tipografikoak egitea testua idazterakoan, horien aurrean sistemak testu zuzena bilatzen saiatuko da. Adibidean “Ahaldundi” idatzi da “Aldundi” idatzi beharrean.

Euskara	Gaztelania	
Foru Aldundi , Foru Diputazio	Diputación foral	+
[HERRIA](e)ko Foru Aldundi	Diputacion Foral de [HERRIA]	+

- Emaiza asko daudenean informazioa orrialdeetan banatuko da, nahiko da orriaren zenbakiak klik egitearekin orri horretako emaitzak ikusteko.


2) Ereduak: atal honetan abokatu eta prokuradoreentzat prestatutako formulario ereduak kontsultatu daitezke. Pantaila nagusian Justizia.net-eko liburutegian dauden formulario zerrendara joateko aukera ematen da. Bertan formulario guztiak zerrendan bistaraten da.

Ereduen bilduman bilaketak egiteko aukera dugu, horretarako eremu zurian formularioaren izenaren zati bat idatzi, hizkuntza aukeratu (Eredu izena euskaraz edo Eredu izena gaztelaniaz) eta “*Bilatu*” botoia sakatuko dugu; emaitzen zerrenda behean ikusiko dugu.

Mota	Eredu-izena	Urtea
-	005. Neurriak aldatzeko autoaren aurkako errekurtsua (14. art.)	2013
-	048. Kaltetuaren apelazio-errekurtsua, jarduketak largestea erabakitzen duen ...	2013
-	062. Adingabearen letraduaren idazkia, adingabeen epaileak emandako epaia...	2013
Zigor arloa	112. Defentsaren idazkia, prozesatze-autoaren aurka erreforma-errekurtsua et...	2013
Zigor arloa	113. Defentsaren idazkia, behin-behineko askatasuna ukatzearen aurka erref...	2013
Zigor arloa	147. Probintzia Auzitegiaren aurrean apelazioko errekurtsua jartzeko idazkia	2013
-	170. Kasazioko errekurtsua jartzeko idazkia	2013
-	171. Kasazioko errekurtsua onartu izanari eta errekurtsu berari aurka egiteko ...	2013
-	172. Kexako errekurtsua prestatzeko idazkia	2013
-	173. Kexako errekurtsua jartzeko idazkia	2013


Eredu bakoitzeko mota, izena eta urtea (formularioa noiz eguneratu den) bistaratuko dira.

Eredu baten gainean klik eginez formularioa Microsoft Word editorean irekiko zaigu.



Worden, eredu barruan, lan egiteko ondorengo aukerak ditugu:

- Eredua bi zutabeetan ikusteko “bi” botoia sakatu
- Eredua euskaraz bakarrik ikusteko “eu” botoia sakatu
- Eredua inprimatzeko (botoitik gabe) inprimagailua botoia sakatu



Eredutik abiatu eta erabiltzaileak lantzen duen dokumentua norberaren ordenagailuan kopia behar da fitxategiari dagokion izena emanez.

3) Galdetu: epaiBiri galdera bat egiteko aukera, euskararekin zerikusia duten gaien inguruko galderak artatuko dira aukera honen bitartez.

Galdera egin ahal izateko ondoko eremua bete eta “*Bidali*” botoia sakatu behar da:

- Harremanetarako nire e-posta: e-posta helbide horretan jasoko duzu epaiBi zerbitzuaren erantzuna.
- Gaia: zalantzaren gaia edo izenburua.
- Galdera: zalantzaren nondik norakoak zehaztu beharko dituzu.

Erantzuna eskaeran zehaztutako e-posta helbidean jasoko duzu.

4) Pilulak: epaiBik hizkuntza hobetzeko gomendioen bilduma landu du. Azken urteetan jaso diren terminologia zalantza ohikoenak, maizen egiten diren akatsak eta abar jaso dira.

Gai jakin baten inguruan pilula edo gomendio bat lantzea nahi baduzu, zure iradokizuna egiteko erabili “*Bidali zure iruzkina*” aukera.

Pilulen artean bilaketa egiteko: eremu zurian testua idatzi eta “*Bilatu*” botoia sakatu. Eraitzen zerrendako lerro batean klikatuz gero pilula ikusiko duzu.

5) Gehiago: aukera honetan erabilgarriak izan daitezkeen estekak azaltzen dira. Gaur egun ondorengoak daude jasota (alda daitezke):

- Gehiago ▾
- JustiziaNET
- Euskalterm
- Hiztegi batua
- Elhuyar
- Eskuliburua
- Kopiatu

- Justizia.net web gunean epaiBiren arloa
- Euskalterm: Terminologiako Banku Publikoa
- Euskaltzaindiaren Hiztegi batua
- Elhuyar hiztegia (euskara-gaztelania)
- e-Toolbarra erabiltzeko eskuliburua (dokumentu hau, alegia)
- Bestalde, e-Toolbarrean azaltzen diren testuak (terminoak, itzulpenak, pilulak...) kopiatu eta beste aplikazioren batean itsasteko, *Gehiago* menuan “*Kopiatu*” aukera gehitu da.

Bidali zure iruzkina: aukera honen bidez erabiltzaileen proposamenak eta iruzkinak jaso nahi dira:

- Sistemaren funtzionamendua okerra bada
- Itzulpen bat zuzendu edo hobetu nahi baduzu
- Ereduetan akatsak aurkitzen badituzu
- Ereduren bat faltan botatzen baduzu
- Pilula edo hizkuntza gomendioren bat proposatu nahi baduzu
- Sistema hobetzeko ideiak bidali nahi badituzu



Iradokizuna ondorengo eremuak bete eta “Bidali” botoia sakatu behar da:

- Harremanetarako nire posta: posta helbide horretan jasoko duzu erantzuna.
- Gaia: iradokizunaren gaia edo izenburua.
- Mezua: iradokizunaren nondik norakoak zehaztu beharko dituzu.

Inongo zalantzarik izanez gero

943 000 756

epaibi@aju.ej-gv.es